### II. eranskina: 5. oinarrian adierazitako jardueren zerrenda

| Kodea CNAE 2009 | Jarduera |
|---|---|
| 05etik 35era (salbu. 13,14 eta 15) | Industria (ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza izan ezik) |
| 41,42 eta 43 | Eraikuntza |
| 45 | Ibilgailu salmenta eta konponketa |
| 46 | Handizkako salerosketa, banaketa |
| 49, 50, 51, 52 eta 53 | Garraioa |
| 62 | Programazioa eta aholkularitza informatikoa |
| 64, 65 eta 66 | Finantza jarduerak eta aseguruak |
| 71 | Zerbitzu teknikoak |
| 721 | Ikerketa eta garapena |
| 80 | Segurtasuna eta ikerketa |

Vitoria-Gasteizen, 2010eko ekainaren 7an.– Ekonomia Sustapenerako Arloko zinegotzi ordezkaria, ISABEL MARTÍNEZ DÍAZ DE ZUGAZÚA.

## VITORIA-GASTEIZ

EKONOMIA SUSTAPENA ETA ESTRATEGIA PLANGINTZA

**4495**

**Ekintzaileentzako udalaren beka programaren deialdia. 2010. urtea.**

2010ean, ekintzaileentzako udalaren beka programa arautzen duten oinarriak onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2010eko ekainaren 4an egindako bilkuran. Orobat onetsi zuen laguntza horietarako deialdi publikoa egitea ALHAOn.

Hortaz, 2010. urtean ekintzaileei bekak emateko deialdia argitaratzen da ondoren.

**Oinarriak**

**1. oinarria.- Xedea eta izaera**

Hauxe dute xede oinarri hauek: beren enpresa-proiektua Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapen eta Estrategia Plangintzaren Sailaren edo enpresa berriak sortzearen alorrean eskarmentua duen beste edozein erakunde publiko nahiz pribaturen tutoretzapean garatzen duten bitartean ekintzaileei ekonomikoki laguntzeko emango diren bekak arautzea, interes orokorreko jarduera, hain zuzen, ekintzaileen kultura eta autoenpleguaren sustapena, bereziki emakumezkoen artean, sustatzeko asmoz.

Oinarri hauetan arautuko diren bekek, diru publikoaren dohaineko erabilera diren aldetik, diru-laguntza publikoen izaera bera dute, eta horien erregimen juridikoaren menpe daude, eta ez da izango diru-kopurua handitzeko edo berrikusteko eskatzerik, salbuespen egoeretan ez bada.

**2. oinarria.- Onuradunen betebeharrak**

Gasteizen erroldatuta egotea.

Adinez nagusia izatea.

Gasteizko udalerrian enpresa sortzeko ekimen bat izatea, Ekonomia Sustapen eta Estrategia Plangintzaren Sailak edo enpresak sortzen laguntzearen alorrean esperientzia duen beste edozein erakunde publiko edo pribatuk babestua.

Ekonomi Jardueren gaineko Zergan izena eman aurretik aurkeztea eskabidea. Nolanahi ere, Ekonomi Jardueren gaineko Zergan 2010eko urtarrilaren lehenetik eta oinarri hauek ALHAOn argitaratzen diren egunera bitartean eman dutenek ere aurkeztu ahal izango dute eskabidea.

**3. oinarria.- Balioespen-irizpideak**

Irizpide hauek hartuko dira aintzat eskabideak balioesteko:

Jardueraren nahiz enpresa kudeaketaren inguruko prestakuntza teknikoa: 15 puntu gehienez.

### Anexo II: Relación de actividades referidas en la base 5

| Código CNAE 2009 | Actividad |
|---|---|
| Del 05 al 35 (exc. 13,14 y 15) | Industria excepto textil, confección, cuero y calzado |
| 41,42 y 43 | Construcción |
| 45 | Venta y reparación de vehículos |
| 46 | Comercio al por mayor, distribución |
| 49, 50, 51, 52 y 53 | Transporte |
| 62 | Programación y consultoría informática |
| 64, 65 y 66 | Actividades financieras y de seguros |
| 71 | Servicios técnicos |
| 721 | Investigación y Desarrollo |
| 80 | Seguridad e investigación |

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de junio de 2010.– La concejala delegada del Área de Promoción Económica, ISABEL MARTÍNEZ DÍAZ DE ZUGAZÚA.

## VITORIA-GASTEIZ

PROMOCIÓN ECONÓMICA Y PLANIFICACIÓN ESTRATÉGICA

**4495**

**Convocatoria del programa municipal de becas para emprender. Año 2010.**

En sesión celebrada el 4 de junio de 2010, la Junta de Gobierno Local aprobó las bases que regulan la concesión de becas para emprender para el año 2010. Asimismo aprobó la convocatoria pública de dichas ayudas mediante su publicación en el BOTHA.

En su cumplimiento se procede a publicar la convocatoria de becas para emprender, con arreglo a las siguientes

**Bases**

**Base 1.- Objeto y naturaleza**

El objeto de estas bases es regular las condiciones que regirán la concesión de becas, dirigidas a apoyar económicamente a las personas emprendedoras en el período de desarrollo de su proyecto de empresa tutelado por el Departamento de Promoción Económica y Planificación Estratégica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz o por cualquier otra entidad pública o privada con experiencia en el campo de apoyo a la creación de empresas, con la finalidad de fomentar una actividad de interés general como es la promoción de la cultura emprendedora y del autoempleo, especialmente entre las mujeres.

Las becas objeto de la presente regulación, en cuanto disposición gratuita de fondos públicos, tienen la naturaleza y el régimen jurídico propio de las subvenciones públicas, no siendo exigible el aumento o revisión de su cuantía, salvo circunstancias excepcionales.

**Base 2.- Requisitos de las personas beneficiarias**

Estar empadronado/a en Vitoria-Gasteiz

Ser mayor de edad.

Disponer de una iniciativa empresarial de creación de empresa en el municipio de Vitoria-Gasteiz, tutelada por el Departamento municipal de Promoción Económica y Planificación Estratégica o cualquier otra entidad pública o privada con experiencia en el campo de apoyo a la creación de empresas.

Presentar la solicitud antes de la fecha de alta en el Impuesto de Actividades Económicas. No obstante, también podrán presentar la solicitud quienes se hayan dado de alta en el Impuesto de Actividades Económicas entre el uno de enero de 2010 y la fecha de publicación en el BOTHA de las presentes bases.

**Base 3.- Criterios de valoración**

Para la valoración de las solicitudes se atenderá a los siguientes criterios:

Formación técnica relacionada con la actividad y en gestión empresarial: hasta 15 puntos

Jardueraren inguruko esperientzia profesionala eta sustatzailea proiektuan zenbateraino murgildua dagoen: 15 puntu gehienez.

Proiektuaren zehaztasuna, argitasuna eta kalitatea: 15 puntu gehienez.

Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa: 15 puntu gehienez.

Lan-egitasmoaren zehaztasuna, koherentzia eta edukiak: 10 puntu gehienez.

Proiektuaren berrikuntza, hastapenetan diren jarduerak edo interes maila, ekonomi sustapenari dagokionez: 30 puntu gehienez.

Guztira: 100 puntu.

Gutxienez 65 puntu lortu beharko dira beka eskuratzekotan.

**4. oinarria.- Iraupena eta zenbatekoa**

Eskatzaileak aurkeztutako enpresa-proiektura eta tutoretza bere gain hartzen duen erakundeak proposatutako lan-egitasmora egokituko da bekaren iraupena. Gehienezko iraupena 6 hilabetekoa izango da.

Bekaren hileko zenbatekoa deialdiaren 3. oinarrian finkatutako balioespen-irizpideak aintzat harturik finkatuko da; gehienez 340,00 eurokoa izango da, eta onuraduna emakumea bada ehuneko 25 handituko.

Hilabeteak igaro ahala ordainduko da beka, udalak, aldez aurretik, beka ematearen ondorio diren betebeharrak bete direla egiaztatzen duelarik.

**5. oinarria.- Onuradunen betebeharrak.**

Betebehar hauek izango dituzte beka jasotzen dutenek:

Egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehazten dituen oroitidazkia aurkeztea.

Beka emateko oinarri izan den jarduera-programa –lan-egitasmoan adierazitakoa– gauzatzea, enpresa sorkuntzaren eta kudeaketaren alorreko prestakuntza jarduerak barne.

Emandako beka dela-eta udalak egiten dituen egiaztatze jardueren menpe jartzea.

Helburu bera duen beste bekaren bat eskatu nahiz eskuratuz gero, lan-kontraturen bat lortuz gero nahiz beka emateko orduan aintzat hartutako edozein egitate edo inguruabar aldatuz gero, jakitera ematea.

**6. oinarria.- Erakunde eta instituzioen betebeharrak**

Betebehar hauek izango dituzte enpresa-proiektua garatzeko tutoretza lanak egiten dituzten erakundeek:

Proiektua garatzeko tutoretza, prestakuntza, jarraipena eta laguntza teknikoa eskaintzeko konpromisoa.

Bekadunari dagozkion zereginak egiteko orduan nondik norakoak azaldu eta laguntzea.

Lan-egitasmoa bideratzeko beharrezko diren bitarteko materialak eta baliabideak jartzea.

Lan-egitasmoaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Laguntzaren onuradunak jokabide ezegokia erakusten badu edo finkatutako jarduera programa, osorik nahiz partez, betetzen ez badu udalari hala jakinarazteko konpromisoa.

**7. oinarria.- Aurrekontu zuzkidura**

2010eko udal aurrekontuetako 0816.3221.489.49 “Enpresak sortzeko laguntzak” partidaren kontura finantzatuko dira deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak. 35.000 eurokoa da partida horren zuzkidura.

Egotzi behar zaizkioneko aurrekontuan helburu honetarako egokitutako kreditu nahikorik egon ezean, laguntzak ukatu egingo dira, eta oinarri hauen eraginkortasuna indargabetu egingo da laguntza berriak emateari dagokionez. Gertakizun horri publizitatea ematearren, Ekonomia Sustapenerako Arloko zinegotzi ordezkariak kreditua noiz ahitu den adieraziko duen ebazpena emango du eta ALHAOn argitaratuko da hori.

**8. oinarria.- Izaera**

Beka emateak eta jasotzeak ez du berekin ekarriko bekadunaren eta enpresa-proiektua bideratzen deneko erakunde edo zentroaren arteko inolako lan-loturarik, ezta haren eta udalaren artekorik ere.

Experiencia profesional relacionada con la actividad y grado de implicación en el proyecto de la persona promotora: hasta 15 puntos

Grado de definición, claridad y calidad del proyecto: hasta 15 puntos

Grado de viabilidad técnica y económica del proyecto: hasta 15 puntos

Nivel de concreción, coherencia y contenidos del plan de trabajo: hasta 10 puntos

Grado de innovación del proyecto, actividades económicas emergentes o grado de interés en términos de promoción económica: hasta 30 puntos

Total: 100 puntos

Para la obtención de la beca se han de superar como mínimo los 65 puntos.

**Base 4.- Duración y cuantía**

La duración de la beca se adaptará al proyecto de empresa presentado por la persona solicitante y al plan de trabajo propuesto por la entidad tutora. Su duración máxima será de 6 meses.

El importe mensual de la beca se establecerá de conformidad a los criterios de valoración establecidos en la base 3 de la convocatoria, con un límite máximo de 340,00 euros, ampliándose en un 25 por ciento cuando la persona beneficiaria sea mujer.

El abono de la beca se realizará a mes vencido y previa comprobación del cumplimiento de las obligaciones derivadas de la concesión de la beca.

**Base 5.- Obligaciones de las personas beneficiarias.**

Son obligaciones de las personas beneficiarias de las becas:

Presentar una memoria en la que se detallen las actividades realizadas y los resultados obtenidos.

Realizar el programa de actividades incluido en el plan de trabajo que fundamenta la concesión de la beca, que incluirá las acciones formativas en creación y gestión de empresas.

Someterse a las acciones de comprobación que realice el Ayuntamiento en relación con la beca concedida.

Comunicar la solicitud u obtención de otras becas para la misma finalidad, la consecución de un contrato de trabajo o la modificación de cualquier hecho o circunstancia que se hubiera tenido en cuenta para su concesión.

**Base 6.- Obligaciones de las entidades e instituciones tutoras.**

Son obligaciones de las entidades e instituciones tutoras del desarrollo del proyecto empresarial de los/as becarios/as:

Compromiso de la entidad tutora de realizar las labores de tutoría, formación, seguimiento y apoyo técnico al desarrollo del proyecto.

Dirigir y apoyar al becario en la realización de las tareas encomendadas.

Suministrar los medios materiales y recursos necesarios para el desarrollo del plan de trabajo.

Seguimiento y evaluación del plan de trabajo.

Compromiso de notificar al Ayuntamiento el comportamiento improcedente o el incumplimiento, total o parcial, del programa de actividades establecido, por el beneficiario de la ayuda.

**Base 7.- Dotación presupuestaria**

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria se financiarán con cargo a la partida 0816.3221.489.49 denominada “Ayudas a la creación de empresas” del presupuesto municipal para el año 2010, por un importe de 35.000 euros.

Se denegará la concesión de las ayudas en el caso de que en el presupuesto al que deban imputarse no exista crédito suficiente y adecuado para dicha finalidad, suspendiéndose la eficacia de las presentes bases en lo relativo a la concesión de nuevas ayudas. Al objeto de dar publicidad a dicha circunstancia, por la concejala delegada del Área de Promoción Económica se dictará resolución señalando la fecha en la que se hubiera producido el agotamiento del crédito, publicándose la misma en el BOTHA.

**Base 8.- Carácter**

La concesión y el disfrute de la beca no supondrán vinculación laboral alguna, ni entre la persona becaria y las entidades o centros donde se realicen los proyectos empresariales ni con el Ayuntamiento.

**9. oinarria.- Bateraezintasuna**

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarri izango dira beste edozein erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin ematen dituenekin.

**10. oinarria.- Nahitaezko agiriak.**

Agiri hauek erantsi beharko zaizkie diru-laguntza eskabideei:

Nortasun agiriaren kopia.

Arabako Foru Aldundiarekiko zerga betebeharrak, baita Gizarte Segurantzarekiko betebehar laboralak ere, beteak dituela adierazten deneko zinpeko aitorpena.

Enpresa proiektua, I. eranskineko ereduari jarraiki.

Lan-egitasmoa, non aurreikusitako jarduerak, lortu nahi diren helburuak eta egutegia zehaztu beharko baitira.

Ekintzaileei laguntzen esperientzia duen erakunderen batek proiektua bideratu bitartean tutoretza-lanak egiteko konpromisoa bere gain hartzen badu, konpromiso hori adierazten duen agiria, eta aurreikusitako tutoretza-lanen egitaraua.

**11. oinarria.- Eskabideak aurkeztea**

1.- Gasteizko udaletxeko Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira eskabideak –Espainia plaza, 1-E.–. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitakoa aintzat hartuko da.

2.- Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eskabideak, eta aurrekontu-zuzkidurarik geratzen den bitartean, gehienez ere 2010eko urriaren 29ra arte.

**12. oinarria.- Akatsak zuzentzea**

Beka eskabideak ez baditu oinarri hauetan xedatutako baldintzak betetzen, edo bertan galdatutako agiriak ez baldin bazaizkie gehitzen, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluaren ildotik, eskatzaileei 10 eguneko epea emango zaie akats eta okerrak konpondu edo falta diren beharrezko agiriak ekar ditzaten. Halaber ohartaraziko zaie hala egin ezean eskaera bertan behera utzitakotzat joko dela eta besterik gabe artxibatu egingo dela, eta lege beraren 42.1 artikuluak aurreikusitako ondorioak izango dituela horrek.

**13. oinarria.- Prozedura**

Hautatze eta jarraipen batzorde bat eratuko da ekintzaileentzako beken programarako. Ekonomia Sustapen eta Estrategia Plangintzaren Saileko zuzendariak, Prestakuntza eta Enplegu Sustapenerako Zerbitzuko buruak eta Berrikuntza eta Ekonomia Sustapenerako Zerbitzuko buruak osatuko dute, eta zeregin hauek izango ditu:

Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea, Berrikuntza Ataleko teknikariek txostena egin ondoren.

Eskabidea egiten dutenen artetik beka eskuratuko dutenak hautatzea, eta Ekonomia Sustapenerako Arloko zinegotzi ordezkariari proposamena egitea.

Saileko teknikarien artetik tutoretzaren arduraduna izendatzea.

Halaber, tutoretza beren gain hartzen duten erakundeek ere finkatutako jarduera-planaren arduradunak izendatu beharko dituzte.

Tutoretza bere gain hartua duen erakundeak, Ekonomia Sustapen eta Estrategia Plangintzaren Saileko arduradunekin bat etorriz, uko egin ahal izango dio prestakuntzarako laguntza eskaintzen jarraitzeari baldin eta bekadunak behin eta berriro kale egiten badu edo jokabide ezegokia erakusten badu. Halakoetan, hautatze eta jarraipen batzordearen proposamena dela medio, bertan behera utzi ahal izango da beka. Orobat, baldin eta tutoreak ikusten badu, gerora egokitutako inguruabarrak direla eta, funtsean aldatu egin dela aldez aurretik finkatutako jarduera plana, hori bukatutzat jo eta lehenengoaren ordezkoa egitea proposatu ahal izango dut.

Ekonomia Sustapenerako Arloko zinegotzi ordezkariaren ebazpena dela medio egingo da ekintzaileentzako beken esleipena, hautatze eta segimendu batzordearen proposamenaren ildotik. Ebazpen horrek agortu egingo du administrazio bidea.

**Base 9.- Incompatibilidades**

Las ayudas previstas en las presentes bases serán compatibles con cualesquiera otras subvenciones que puedan otorgar otras instituciones públicas o privadas con el mismo objeto y finalidad.

**Base 10.- Documentación preceptiva.**

Las solicitudes de subvención deberán venir acompañadas de la siguiente documentación:

Copia del Documento Nacional de Identidad.

Declaración jurada de encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias ante la Diputación Foral de Álava, así como, laborales ante la Seguridad Social.

Proyecto empresarial según modelo (anexo 1)

Plan de trabajo en el que se detallen las acciones previstas, los objetivos que se persiguen y su calendario.

En el caso de que una entidad con experiencia en el campo del apoyo a personas emprendedoras se comprometa a tutelar el desarrollo del proyecto, documento en el que se exprese dicho compromiso y programa de las acciones de tutela previstas.

**Base 11.- Presentación de solicitudes**

1.- Las solicitudes deberán ser presentadas en el Registro General del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, sito en la Plaza de España, número 1 E, resultando de aplicación lo previsto en el artículo 38.4 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.- Podrán presentarse solicitudes a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el BOTHA y mientras exista dotación presupuestaria para este fin, hasta el 29 de octubre de 2010.

**Base 12.- Subsanación de deficiencias**

Si la solicitud de beca no reúne los requisitos exigidos en las presentes bases, o no se acompañara a la misma la documentación exigida, de conformidad con lo previsto en el artículo 71 de la Ley 30/92, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimientos Administrativo Común, se requerirá a las personas interesadas para que, en un plazo de 10 días, subsanen las faltas o acompañen los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hicieran, se los tendrá por desistidos de su petición, archivándose sin más trámites, con los efectos previstos en el artículo 42.1 del mismo texto legal.

**Base 13.- Procedimiento**

Se constituye una comisión de selección y seguimiento del programa municipal de becas para emprender integrada por la directora del Departamento de Promoción Económica y Planificación Estratégica, la jefa del Servicio de Formación y Promoción de Empleo y la jefa del Servicio de Innovación y Promoción Económica, cuyas funciones serán las siguientes:

Análisis y evaluación de las solicitudes presentadas, previo informe del personal técnico de la Unidad de Innovación.

Seleccionar entre las personas solicitantes las que serán objeto de beca y elevar a la concejala del Área de Promoción Económica la propuesta de su concesión.

Designar entre el personal técnico del departamento a la persona responsable de la tutoría.

Las entidades tutoras nombrarán, así mismo, las personas responsables del plan de actividades preestablecido.

La entidad tutora podrá desistir de continuar su colaboración formativa con un becario que falte reiteradamente o muestre un comportamiento improcedente de acuerdo con los responsables del Departamento de Promoción Económica y Planificación Estratégica. En este caso, a propuesta de la comisión de selección y seguimiento, podría procederse a la revocación de la beca. Así mismo, si el tutor observara que por circunstancias sobrevenidas se altera sustancialmente el plan de actividades preestablecido, podrá proponer la finalización del mismo y la realización de otro alternativo.

La adjudicación de las becas para emprender se efectuará mediante resolución de la concejala delegada del Área de Promoción Económica, a propuesta de la comisión de selección y seguimiento. Sus resoluciones pondrán fin a la vía administrativa.

**14. oinarria.- Publizitatea**

Sei hilabetean behin, epe horretan emandako diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da ALHAOn eta udaletxeko iragarki taulan, onuradunak, zenbatekoak eta xedeak adierazten direlarik.

**15. oinarria.- Europako Gizarte Funtsaren finantziazioa**

Laguntza deialdi hau partez (ehuneko 50) Europako Gizarte Funtsak finantzatua da, 2007-2013 izeneko programa eragilearen baitan eta "Enpresa Lokala 10. Inbertitu etorkizunean" proiektuaren barruan.

**16. oinarria.- Bekak aldatzea**

Bekak emateko kontuan izandako baldintzak aldatuz gero, eman zireneko ebazpenak aldatzea ekar lezake horrek berekin. Egokitu egingo da diru-laguntzaren zenbatekoa, beste ebazpen baten bitartez. Bere helburua betetzen duelarik, hortik gora jasotako diru-kopurua itzuli beharra izango du jasotzaileak, behar den likidazioa egin ondoren. Aldiz, hautatze eta jarraipen batzordeak, teknikariek txostena egin ondoren, oraindik helburua lortu ez dela irizten badio, diru-kopurua dagokion proportzioan handitzea proposatu ahal izango du, beti ere 4. oinarrian finkatutako muga gainditu gabe.

**17. oinarria.- Kontrola eta ebaluatzea**

Gasteizko Udalak, Ekonomia Sustapenerako Sailaren bitartez, emandako laguntzak aurreikusitako xedeetara bideratzen direla bermatzeko beharrezko suertatzen diren kontrol eta ebaluazio ekintzak burutuko ditu.

**18. oinarria.- Laguntzak itzultzea**

Jasotako kopuruak itzuli egin beharko dira, baita beka ordaintzen denetik sortutako interes legalak ere, laguntzen onuradun diren pertsonek oinarri hauetan, emate ebazpenean nahiz aplikagarri suertatzen diren gainerako arauetan ezarritako baldintzak urratzen badituzte; guztia ere, dena delako urraketaren ondorioz udalak bidera litzakeen bestelako ekintzak gorabehera.

Dagozkien ondorio legaletarako, itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira.

Kudeaketa, kontrol edo ikuskatze lanetan beka modu ezegokian eskuratu dela atzematen bada, edo oker erabiltzen ari dela, hala jasoko da dosierrean eta, horrenbestez, beharrezko diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

**19. oinarria.- Itzularazteko prozedura**

Beka itzularazteko dosierra abiarazi eta, behar izanez gero, hala galdatzeko erabakia hartzeko eskumena hura eman zuen organoak izango du.

Ofizioz nahiz eskumena duen organoak edo interesdunak eskatuta abiarazi ahal izango da prozedura.

Horretarako probidentzia ematen delarik, dirua itzularazteko prozedura abiarazi dela jakinaraziko dio udalak bekaren onuradunari, baita arrazoiak zein izan diren ere, eta entzunaldia eskainiko dio, egokitzat dituen alegazioak egin eta bidezkotzat jotzen dituen agiri edo justifikazioak aurkez ditzan, hamabost eguneko epean.

Alegazioak jasotzen direlarik nahiz halakorik jaso gabe igarotzen delarik epea, ebazpen arrazoitua emango du Ekonomia Sustapenerako Arloko zinegotzi ordezkariak, eta aurkez daitezkeen errekurtsoen berri adieraziko.

Laguntza itzularazteko prozedura ebazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da.

Ebazpenean urraketaren bat izan dela adierazten bada, galdutzat joko da beka jasotzeko eskubidea, eta, horrenbestez, oker jasotako dirua Udal Diruzaintzari itzultzeko obligazioa izango da; bi hilabeteko epean egin beharko da hori, jakinarazpena jasotzen denetik kontatu. Borondatezko aldiko epetzat joko da epe hori.

Diru-laguntza aurreikusitako epean itzultzen ez bada, premiamendu prozedurari ekingo zaio, aplikagarri diren lege-araudiei jarraiki.

**Base 14.- Publicidad**

Con carácter semestral se publicará en el BOTHA y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento una relación de las subvenciones concedidas en dicho periodo, con indicación de las personas beneficiarias de las mismas, su importe y objeto.

**Base 15.- Cofinanciación del Fondo Social Europeo**

La presente convocatoria de ayudas se encuentra cofinanciada al 50 por ciento por el Fondo Social Europeo, en el marco del programa operativo 2007-2013 y dentro del proyecto "Empresa Local 10. Invierte en tu futuro".

**Base 16.- Modificación de las becas**

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de las becas podrá dar lugar a la modificación de la resolución de su concesión. Por una nueva resolución, se reajustará la cuantía de la subvención. En el caso de haber cumplido su objetivo, tras la oportuna liquidación, la persona beneficiaria quedará obligada a devolver el importe percibido en exceso. Si, por el contrario, la comisión de selección y seguimiento, previo informe técnico, considera que todavía no se ha alcanzado dicho objetivo, podrá proponer el incremento de su importe en la parte proporcional correspondiente, sin exceder de los límites establecidos en la base 4.

**Base 17.- Control y evaluación**

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, a través de su Departamento de Promoción Económica y Planificación Estratégica, realizará las acciones de control y evaluación que resulten necesarias en orden a garantizar la correcta aplicación de las ayudas concedidas a los fines previstos.

**Base 18.- Reintegro de las ayudas**

Procederá el reintegro de las cantidades percibidas, así como la exigencia de los intereses legales que correspondan desde el momento del pago de la beca, cuando las personas beneficiarias de las ayudas incumpliesen las condiciones establecidas en las presentes bases, en la resolución de concesión y en las demás normas que resulten de aplicación, todo ello sin perjuicio de las acciones que procedan como consecuencia del incumplimiento.

Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de derecho público a los efectos legales pertinentes.

Cuando en el ejercicio de las funciones de gestión, control o inspección se deduzcan indicios de la incorrecta obtención o disfrute de la beca, se hará constar en el expediente y, en su virtud, se podrá acordar la adopción de las medidas cautelares que en cada supuesto correspondan.

**Base 19.- Procedimiento de reintegro**

Será competente para iniciar el expediente y, en su caso, adoptar la resolución de exigencia del reintegro, el órgano que concedió la beca.

El procedimiento podrá iniciarse de oficio, a instancia de órgano competente o de persona interesada.

Adoptada providencia al efecto, el Ayuntamiento comunicará a la persona beneficiaria de la beca la iniciación del procedimiento de reintegro y las causas que lo fundamentan, dando audiencia a la interesada para que, en un plazo de 15 días, formule las alegaciones que considere oportunas y presente los documentos o justificaciones que estime pertinentes.

Recibidas las alegaciones o transcurrido el plazo sin que se hubieran formulado, por la concejala delegada del Área de Promoción Económica se dictará resolución motivada, con expresión del régimen de recursos.

El plazo máximo para resolver el procedimiento de reintegro será de seis meses.

Si la resolución estimase la existencia de incumplimiento, declarará la pérdida del derecho a la percepción de la beca y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería Municipal las cantidades indebidamente percibidas en un plazo de dos meses desde la notificación. Este plazo se considerará como plazo de pago en periodo voluntario.

En caso de no efectuar el reintegro en el plazo previsto, se dará inicio al procedimiento de apremio, conforme a la normativa legal aplicable.

Diru-laguntza itzularazteko prozedura arau-hauste administratibo baten ondorioz abiarazia bada, eskumena duen organori jakinaraziko zaio, aplikagarri den zigortze prozedurari ekin diezaion.

**20. oinarria.- Ordezko erregimena**

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak eta Laguntzak arautzeko Ordenantza (udalbatzak 2005eko ekainaren 17ko osoko bilkuran onetsia eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn argitaratua) hartuko da kontuan, baita azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea ere.

**21. oinarria.- Indarrean jartzea**

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek.

**22. oinarria.- Isilpekotasun klausula**

Jasotzen dituen datuak –bere jarduerei zabalkundea eman eta halakoak sustatzeko– datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sar litzakeela jakinarazten die eskatzaileei Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapen eta Estrategi Plangintzaren Sailak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Horren gaineko eskubideez baliatu nahi izanez gero –norberaren datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu–, Gasteizko Udaleko helbide honetara jo beharko dute: Espainia plaza, z/g; 01001 Vitoria-Gasteiz, edo herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batera.

**1. eranskina: Enpresa proiektua**

1.- Proiektuaren aurrekariak

Ideiaren sorrera eta bilakaera

Proiektua zein maila edo fasean dagoen. Bideratutako ekintzak

2.- Talde sustatzailea

Curriculum vitae zehatza. Ezagupen teknikoak zehaztu, baita enpresa kudeaketaren alorrekoak ere. Sustatzaileak proiektuan zenbateraino murgilduak dauden azaldu.

3.- Negozioaren egokitasunaren ebaluazioa.

Produktu edo zerbitzuaren deskribapena. Alderdi berritzaileak

Merkatuari buruzko ezagupenak:

Sektorearen egoera eta joerak

Izan litezkeen bezeroen ezaugarriak

Konkurrentziaren ezaugarriak. Abantailak eta desabantailak, lehiakideen aldean

Proiektuaren puntu sendoen eta izan ditzakeen ahulguneen balioespena.

4.- Ekonomia eta finantza plana

Aurreikusitako inbertsioen balioespena.

Finantziazio iturriak.

Diru-sarrera eta gastuen aurreikuspena. Errentagarritasun atalasearen kalkulua.

5.- Ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko ekainaren 7an.– Ekonomia Sustapenerako Arloko zinegotzi ordezkaria, ISABEL MARTÍNEZ DÍAZ DE ZUGAZÚA.

## VITORIA-GASTEIZ

EKONOMIA SUSTAPENA ETA ESTRATEGIA PLANGINTZA

**4496**

**Gasteizko hirigunean enpresa txikiak ezarri, modernizatu eta berritzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdia. 2010. urtea.**

2010eko ekainaren 4an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko hirigunean enpresa txikiak ezarri, moder-

Si el procedimiento de reintegro se hubiera iniciado como consecuencia de una infracción administrativa, se pondrá en conocimiento del órgano competente para la iniciación del procedimiento sancionador aplicable.

**Base 20.- Régimen supletorio**

En lo no previsto en estas bases será de aplicación la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, aprobada por el Pleno en sesión ordinaria de 17 de junio de 2005 y publicada en el BOTHA de 13 de enero de 2006, así como, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Base 21.- Entrada en vigor**

Las presentes bases entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el BOTHA.

**Base 22.- Cláusula de confidencialidad**

El Departamento de Promoción Económica y Planificación Estratégica del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, en cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, informa que los datos personales de las solicitudes podrán ser incorporados a los ficheros automatizados de datos de carácter personal titularidad de esta entidad, cuya finalidad es la difusión y promoción de sus actividades. Pudiendo si lo desean ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose a la Oficina de Información Central del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz en la siguiente dirección: Plaza de España s/n 01001 Vitoria-Gasteiz y en todas las oficinas de Atención Ciudadana.

**Anexo 1: Proyecto empresarial**

1.- Antecedentes del proyecto

Origen y evolución de la idea

Grado o fase de maduración del proyecto. Acciones realizadas

2.- Grupo promotor

Curriculum Vitae detallado. Especificar los conocimientos técnicos y de gestión empresarial que se posean. Explicar el grado de implicación de los/as promotores/as en el proyecto.

3.- Evaluación de la oportunidad de negocio

Descripción del producto o servicio. Aspectos innovadores

Conocimientos del mercado:

Situación y tendencias del sector

Características de la clientela potencial

Características de la competencia. Ventajas y desventajas frente a los competidores

Valoración de los puntos fuertes y de las posibles debilidades del proyecto.

4.- Plan económico-financiero

Estimación de las inversiones previstas.

Fuentes de financiación.

Previsión de ingresos y gastos. Cálculo del umbral de rentabilidad.

5.- Conclusiones.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de junio de 2010.– La concejala delegada del Área de Promoción Económica, ISABEL MARTÍNEZ DÍAZ DE ZUGAZÚA.

## VITORIA-GASTEIZ

PROMOCIÓN ECONÓMICA Y PLANIFICACIÓN ESTRATÉGICA

**4496**

**Convocatoria del programa municipal de ayudas económicas para el apoyo a la implantación, la modernización y la innovación de las pequeñas empresas del centro urbano de Vitoria-Gasteiz. Año 2010.**

En sesión celebrada el 4 de junio de 2010, la Junta de Gobierno Local aprobó las bases que regulan la concesión de ayudas económi-